

## **Funtsezko Jarduerak**

Funtsezko jarduerak enpresak egin beharreko ekintza garrantzitsuenak dira. Gure bezeroari balio-proposamena eskaintzen baimentzen diguten jarduerak, kanal batzuen bidez eta harreman-mota zehatz batekin aurrera eramaten direnak, hain zuzen ere. Hauek dira gure proiektuak behar dituen bi funtsezko jarduerak: alde batetik, plataforma: bezeroen eta denden web orrialdeen arteko salerosketa errazak sustatzeko eta bestetik, arazoen konponketa, bezeroarekin kontaktu pertsonalak mantentzea arazoak ekiditeko asmoz.

Gure proiektua aurrera eramateko, egin behar ditugun funtsezko eginkizunak plataforma eta sareko jarduerekin lotura dute, beraz, hauek ongi egituratzeko eta eguneratzeko betebeharra daukagu. Gainera, guretzat dendekin eta beraien webguneekin komunikazioa mantentzea funtsezkoa da, bezeroen eskaerak modu eraginkor batean kudeatzeko. Hau da, guk saltzen ditugu beraien produktuak gure web orrialdetik, baina, beraien dira produktuak bezeroengana helarazten dituztenak.

Bestalde, oso garrantzitsua da arazoen konponketa, guk eskaintzen dugun zerbitzu automatizatua eta atentzio edota laguntza pertsonalizatua dela eta. Honen bidez, bezeroek haien zalantzak argitzeko eta produktuen inguruan sortu ahal diren arazoak erraz konpontzeko. Horrez gain, erositako produkturen bat itzuli nahian guk laguntza eskaintzen diegu jarduera hori erraztasunez egin ahal izateko.

Lehen esan dugun heinean, gure enpresak ekoizpena beste enpresa batzuen esku usten du, guk bezero eta denden lotura garelako, baina guk ez dugu produkturik ekoizten, hau da, guk denda eta bezeroen arteko harremana errazteko erreminta moduko bat gara, denden salmentak handitzeko eta bezeroak erosketak zuzenean eta errazagoak egin ahal izateko, deskontuak izateko abagunea eskainiz.